

Elkar ezagutu genuen eguna

PISZIFAKTORIA IDEIEN LABORATEGIAREN ANTZEZLAN BAT

SINOPSISIA

Normalak edo... zoriontsuak? Zirt edo zart egin beharrean daude Iker eta Anja.

Anjak dena utziko du atzean, lana, familia, lagunak, bere herrialdea, eta, hegazkina hartuta, bere maitearen bila abiatuko da. Iker gogaituta dago maitasunarekin, eta bakarrik egin nahi du hemendik aurrerako bidea.

Zorionaren bila norabide desberdinean badoaz ere, aireportuan topo egingo dute biek. Harremana sendotzera dator Anja. Harremana uztera, Iker. Talka egingo duten bi hegazkin dira.



Elkar ezagutu genuen egunean, hotz egiten zuen, otsailaren 7 guztietan bezala. Zure begiekin akordatzen naiz. Batez ere. Jende zoriontsuak izan ohi duen distira zeukaten egun hartan. Zoriontsuak ginela ematen zuen. Baina nola heldu ginen haraino? Zein da zoriontsua izateko ibili beharreko bidea?

HIRU GAKO NAGUSIAK

01

20 minutuko iraupena duen antzezlan labur hau ezohiko guneetan erakusteko obra bat da, ez baitu agertoki baten beharrik (nahiz eta agertokiaren gainean ere eman daitekeen arazorik gabe). Arnas laburreko antzezlan bada ere, lan handien modura pentsatua eta mamitua dago.

02

Haririk gabeko audio-sistema bat erabiltzen dugu, eta **publikoak entzungailuak jantzi behar ditu**. Teknologia horri esker, ikusleak esperientzia berezi batean murgilduko dira eta pertsonaien buru barruko pentsamenduak entzungo dituzte. Lan hau antzerkia beste dimentsio batera eramateko pentsatuta dago.

03

Gaur egun oso bogan dauden **hainbat gai mahai gainean jartzen ditu**: ustezko normaltasun batek eragiten duen desasosegua; gero eta bakartuago bizi den gizartea; urrutiko harremanak; elkarrekin egoteko, hitz egiteko, maitasuna adierazteko edo sexua praktikatzeko teknologiaren erabilera...

Lan hau Donostia Hiriko Kutxa
Literatura Saria jaso duen *Zoriontsuak*
izatea aukeratu genuen liburuko ipuin
batean oinarrituta dago, eta Gasteizko
Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren
laguntza jaso du. 2020ko abenduaren
18an estreinatu zen jaialdi horren
egitarauaren barruan.



FORMATU AUKERAK

01

Elkar ezagutu genuen eguna antzezlan

Iraupena: 20 minutu.

Ikusle kopuru mugatua: 40 eta 60 pertsonaren artean.
Jarraian bi pase egiteko aukera dago.

02

Elkar ezagutu genuen eguna antzezlan + solasaldia

Antzezlanaren ondoren, *Zoriontsuak izatea aukeratu*
genuen liburuaren inguruko solasaldia Mikel Ayllon
idazlearekin.

Iraupena: 60 minutu.

Ikusle kopuru mugatua: 40 eta 60 pertsonaren artean.
Jarraian bi pase egiteko aukera dago.

Ibilbidea

(lan honek egin duen bidearen lagin txiki bat)

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia | Gasteiz | 2020ko abendua

Tabakalera | Donostia | 2021eko martxoa

Loraldia jaialdia | Bilbo | 2021eko martxoa

Lautan Hiru antzerki jaialdia | Bilbo | 2021eko maiatza

Faktoria | Laudio | 2021eko ekaina

Katakrak | Iruñea | 2021eko ekaina

Oihaneder | Gasteiz | 2021eko azaroa



Behar teknikoak

Espazioa/agertokia:

Antzezlanaren gune itxi batean egiteko prestatuta dago, gutxienez 5x6 metroko espazio diafano batean. Agertokiarekin edo gabe. Kea detektatzeko alarmak itzali behar dira.

Argia:

Obra egiteko espazioak, ahal dela, itsua behar du, kanpoko argi naturalik gabe. Konpainiak jarriko du beharrezko argiteria guztia. Argi-hartune arrunt bat behar da. Ez da argi-teknikaririk behar.

Soinua:

Konpainiak eramango ditu beharrezko soinu-tresna guztiak.

Kamerinoa:

Antzeztokitik gertu dagoen kamerinoa, bi aktorerentzako lekuarekin.

Muntatu eta desmuntatzeko lanak

2 ordu muntatze-lanetarako eta ordubete dena jasotzeko.

Fitxa Artistikoa

AKTOREAK

Irati Agirreazkuenaga

Aritz Bengoa

ZUZENDARIA

Pablo Ibarluzea

GIDOIA

Mikel Ayllon

MUSIKA

Igor Arzuaga

irati
onaindia

aritz
bengoa

ELKAR EZAGUTU GENUEN EGUNA

pablo ibarluzeak zuzendutako mikel ayllonen istorio bat
igor arzuagaren musikarekin





Kontratazioa

Banaketa:
Piszifaktoria Ideien Laborategia
Mikel Ayllon
pizifaktoria@gmail.com
620605150
pizifaktoria.eus

